

# BOOBIZI

## Kostuen egitura

Kostuak bi motatakoak dira: kostu finkoak eta kostu aldakorrak.

Alde batetik, kostu finkoak daude, guk izango ditugunak honako hauek dira: Web-gunearen hosting-a, makineria (josteko makina), tresneria (orratza, josteko guraizak), ordenagailuak edo mugikorrak. Aurrerago, lokal bat izatea adostuz gero, kostu finkoa ere izango zen; berdina gertatuko zen langileen soldatarekin. Lehenago aipatu moduan gure asmoa, enpresa haztean langileak kontratatzea da, eta noski hauen soldatak finkoak eta duinak izatea nahi dugu. Baita lan-baldintzak ere, segurtasun eta osasun arauak kontuan izanez beti, langileriaren ongizatea bermatzeko.

Bestetik, kostu aldakorrei dagokienez, ekoizpenaren arabera alda daitezke. Esate baterako, zenbat bularretako ekoiztuko ditugunen baitan, lehengai gehiago erabiliko ditugu edo ez. Berdin gertatzen da erabilitako elektrizitatearekin, lanorduak berdinak ez direlako, eta gainera, argiaren prezioa etengabe aldatzen da. Hori dela eta, ezinezkoa izango da zenbat izango diren kostu hauek zehazki kalkulatzeko. Espero dugu kostu aldakor gero eta gehiago izatea, horrek salmeta asko egon direla eta enkargu gehiago edukiko ditugula esan nahi duelako.

Benetako kostua oihala erostea izango da, lehenagaitik hau gure produktuaren oinarria baita. Hasieran, kostu gutxi izango ditugu: webgunea mantentzea (webgunearen hosting-a eta horrekin doazen hornidurak; elektrizitatea, argia...) eta produktua ekoizteko materiala eskuratzea (oihala, orratza, haria, guraizak...). Hedatzean, berriz, langileak kontratu beharko genituzke eta oihal kantitate gehiago erosi, eta ondorioz, kostuak handituko ziren. Hala ere, kostu hauei aurre egiteko beste enpresa batzuekin lankidetzan arituko ginen (AECC, Eroski eta Gasteizko mertzeriak, besteak beste), arriskuak txikituz eta gure markaren ospea handituz ere bai.

Hedapen-ekonomiak: